

**Txostena**

**Informe**

**Euskal Herrian Arreta Sozio-  
sanitarioa emateko Plana,  
ekonomia-finantza balorazioa**

**Plan de Atención Sociosanitaria  
del País Vasco, valoración  
económico-financiera**

**2005-2008**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA.....	5
II. EGOITZA UNITATE SOZIOSANITARIOAK.....	9
III. ADINEKO PERTSONEN EGOITZAK.....	11
IV. MINUSBALIOTASUN FISIKO HANDIA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZAK.....	17
V. UNITATE PSIKOSOZIALAK.....	18
VI. BESTE JARDUERA BATZUK.....	20
VII. PLAN ESTRATEGIKO SOZIOSANITARIOA.....	23
I. INTRODUCCIÓN.....	25
II. UNIDADES RESIDENCIALES SOCIO SANITARIAS.....	29
III. RESIDENCIAS DE PERSONAS MAYORES.....	31
IV. RESIDENCIAS PARA PERSONAS CON GRAN DISCAPACIDAD FÍSICA.....	37
V. UNIDADES PSICOSOCIALES.....	39
VI. OTRAS ACTUACIONES.....	41
VII. PLAN ESTRATÉGICO SOCIO SANITARIO.....	44

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 24an

Vitoria-Gasteiz, a 24 de julio de 2009





## I. SARRERA

Euskal Herriko Arreta Soziosanitariorako Planaren ekonomia- eta finantza-balorazioa egiteko txosten hau Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legearen arabera egin da eta Euskal Herriko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak eskatuta 2007ko ekitaldirako Lanerako Planean jasota dago.

Ebaluazio hau egiteko, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren jardura soziosanitarioen informazio ekonomikoa eta finantzarioa jaso da. Zehazki, honako alderdi hauek aztertu ditugu:

- a) Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak eta Osakidetzak adineko pertsonentzako egoitzetan eta arreta soziosanitarioko unitateetan osasun arreta eskaintzeko eta adimen-gaixo kronikoentzako zentro psikosozialetan laguntza psikiatrikoa eskaintzeko sinatu dituzten hitzarmenen kostu ekonomikoa nahiz administrazio horiek zentro horien kudeaketan izan dituzten gastuak, baita horien inguruko itunen ondoriozko gastuak ere.
- b) Gauzatu diren beste jardura soziosanitario batzuk berrikusi dira Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailarekin nahiz Aldundien gizarte gaien sailekin, eta horiek administrazioari eragin dizkioten kostu ekonomikoa zein den zehaztu da. Horretarako, Arartekoak 2008an Euskadiko arreta soziosanitarioaren egoerari buruz egin zuen txostena erabili dugu erreferentzia gisa.
- c) Euskal Herriko Arreta Soziosanitarioa Garatzeko Plan Estrategikoan onetsitako ekintza planaren kostuaren eskema.

Ez dira udalek arlo soziosanitarioan izan dituzten gastuak analizatu. Gizarte zerbitzuen arloko eskumenen banaketaren arabera, adineko pertsonentzako eta pertsona minusbaliatuentzako arreta Foru Aldundiei dagokien eskumena da. (Gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 D. eta Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta EUDELeK 2001eko otsailaren 8an gizarte zerbitzuen alorreko eskumenen banaketari buruz sinatutako akordioa).

## LAGUNTZA SOZIOSANITARIOA

Arreta soziosanitarioa Osasunaren Sistema Nazionalaren Kohesioa eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeko 14. artikuluan definitutako kontzeptu bat da. Lege horren barruan sartzen da osasun eta gizarte zerbitzuen aldibereko ekintza sinergikoaz baliatzeko moduko egoeran dauden gaixoei (normalean gaixo kronikoak dira) zuzendutako arreta. Horrez gain, Lege horrek arreta maila zehazteko lana Autonomia Erkidegoei egotzen die eta osasun eta gizarte zerbitzuen arteko koordinazioa prestazioen printzipiotzat jotzen du.

2003ko urtarrilaren 30ean eratu zen Laguntza Soziosanitariorako Euskal Kontseilua (LSEK) Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) gizarte eta osasun zerbitzuak koordinatzeko eta Eusko Jaurlaritzako (Osasun, Etxebizitza eta Gizarte Zerbitzu Sailetakoa eta Osakidetzako), hiru Foru Aldundietako eta EUDELeko kideak barne hartzen zituen.



2005ean LSEKak 2005-2008 aldirako Euskal Herriko Arreta Soziosanitarioa Garatzeko Plan estrategikoa onetsi zuen. Planak arreta soziosanitarioaren eredia zehazten du eta ondoren, jarduera esparrua eta jarduteko modua jasotzen ditu:

- Osasun arazo larriak dauzkaten pertsonak, muga funtzionalak dauzkatenak edo baztertuak izateko arriskuan daudenak, osasun edo gizarte arreta aldi berean eta modu koordinatu eta egonkorrean behar dutenak.
- Dauden bi sistemak mantentzea: Osasun sistema eta sistema Soziala, eta beren arteko koordinazio prozedurak zehaztea.

Planak ez du zerbitzu zorro bat jasotzen, hala ere, LSEKaren barruan zorro bat onesteko helburua ezartzen du, baina txosten hau egin den unerako ez da inolako zorrerik onetsi. Zerbitzu zorro hori ez onetsi izanaren ondorioz, jarduera soziosanitarioak definitu gabe daude, izan ere, planean zehaztutako gauza bakarra arreta soziosanitarioa har dezaketen kolektiboak baitira:

- Menpeko adineko pertsonak.
- Pertsona minusbaliatuak.
- Adimen osasuneko arazoak dauzkaten pertsonak.
- Gaixotasun somatiko kronikoak eta/edo ezintasuna eragiten dutenak dauzkaten pertsonak.
- Gaixotasun terminalak dauzkaten pertsonak.
- Baztertuak izateko arriskuan dauden beste kolektibo batzuk.

Azken 7 urteotan Aldundiek, Jaurlaritzak eta Osakidetzak hainbat hitzarmen sinatu dituzte eta Jaurlaritzak hitzarmen horiei jarraiki laguntzen du osasun prestazio jakin batzuen finantzaketan. Horrez gain, gizarte zerbitzuen arloan diharduten elkarteekin ere hitzarmenak sinatu dira. Hau da, esparru honetan hitzarmenak hiru motatakoak dira:

- a) Eusko Jaurlaritza, Osakidetza eta Aldundi baten arteko hitzarmena, Jaurlaritzak plazaren kostuaren zati bat gutxi (gorabehera % 50) finantzatzen duenean: arreta soziosanitariorako unitateak eta zentro psikosozialak.
- b) Eusko Jaurlaritza, Osakidetza eta Aldundi baten arteko hitzarmena, Jaurlaritzak sendagileen eta erizainen kostua finantzatzen duenean.
- c) Eusko Jaurlaritzak menpeko pertsonen edo osasun arazo zehatzak izanik baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen arretarako elkarteekin sinatutako hitzarmenak, Aldundiek ere elkarte horiekin lankidetzak hitzarmenak dituztenean.



Plan Estrategikoa indarrean egon den aldian, esparru soziosanitarioan eragina duten bi lege onetsi dira:

- a) 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Sustatzeko eta Horientzako Arreta Arautzeko dena. Lege honek arreta soziosanitarioaren ikuspuntutik ez du asko gehitzen arlo hori definitu eta arautzeko, baina hala ere, lan zama garrantzitsua izan da Lege horren arabera arreta jaso lezaketzen pertsonen menpekotasun maila baloratzeko beharra dela eta.

Ikuspuntu finantzariotik 14.006 mila euro gehiagoko diru-sarrerara eragin du 2007an Estatuari kupoan beherapena eginez, horietariko 311 mila euro EAeko Administrazio Orokorrari dagozkio eta gainerakoa Aldundien artean banatu da parte-hartzeen koefiziente horizontalen arabera.

- b) 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Lege honek euskal legegintza esparruan Plan Estrategikoa jasotako kontzeptuetariko batzuk sartu ditu. Hortaz, 46. artikuluan jasotakoaren arabera, arreta soziosanitarioa honakoa da: osasun arazo larriak edo muga funtzionalak eta/edo gizartetik baztertuak izateko arriskuarekin lotutako arazoak direla eta, aldi berean osasun eta gizarte arreta koordinatua eta egonkorra behar duten pertsonen zuzendutako arreta jarraitua. Horrez gain, bi sistemen arteko koordinazioa Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseiluaren bidez autonomia erkidego mailan gauzatuko dela zehazten du.

Esparru soziosanitarioan eskainitako arretari dagokionez, 56. artikuluan zehaztutakoaren arabera, soziosanitarioak soilik diren elementuak, espezifikoki soziosanitarioak diren unitateetakoak eta arreta soziosanitario orokorrekoak arlo honetan esku hartzen duten administrazio publikoek elkarrekin finantzatu ahalko dituzte eta horretarako, hitzarmenak egin ahalko dituzte finantzaketa horren barruko erakundeak zein diren adosteko, bestalde, dagozkien konpentsazio ekonomikoko formulak aplikatuko dituzte sistema sanitariotik gizarte zerbitzuen sistemara, edo alderantziz.

## TXOSTENAREN EGITURA ETA ONDORIO OROKORRAK

Txostena laguntza unitate moten arabera egituratu da eta Lurralde Historiko bakoitzean duten jarduera, kostua eta finantzaketa aztertu da. Hiru Aldundien datuen ondoren, sinatutako hitzarmenei buruzko ondorio batzuk erantsi dira.

Ondorengo taulan erakunde arteko hitzarmenen baten barruko laguntza unitateei buruzko datu nagusiak laburbildu dira. Datuak 2007ko ekitaldikoak dira:



	Erabiltzaile kopurua	Kostua Coste Aldundiak	Finantzaketa Gobernua	Mila euro Ekarpena Erabiltzaileak
Egoitza unitate soziosanitarioak .....	125	2.862	1.767	298
Adineko pertsonen egoitzak .....	8.849	164.946	5.159	59.830
Minusbalotasun fisiko handia duten pertsonentzako egoitzak ...	79	3.152	58	606
Unitate Psikosozialak.....	643	2.849	1.879	362
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.696</b>	<b>173.809</b>	<b>8.863</b>	<b>61.096</b>

Hitzarmenek ez dute zehazten zein den prezioak berrikusteko prozedura, hau da, urtero berrikusiko direla soilik adierazten dute. Berrikuspena laguntza soziosanitarioari buruzko Lurralde Kontseiluetan egiten da.

Eusko Jaurlaritzak, Osakidetza eta Aldundiek zerbitzu soziosanitarioen eskaintza eta finantzaketa arautzeko lankidetzak hitzarmenetan oso desberdintasun nabariak daude. Horrez gain, aipatzekoa da arreta soziosanitarioa jasotzen duten kolektibo batzuen kasuan, adibidez, adimen gaixotasunak dauzkaten pertsonen kolektiboaren kasuan, jarduteko irizpide desberdinak jaso dira eta Lurralde Historiko bakoitzera egokituta egon daitezkeen arren, ez dira irizpide bateratuak. Egoitza unitate soziosanitarioen inguruko jardueretan soilik antzematen da batasuna.

Plana onetsi zenetik gizarte esparruan agertu diren araudiek Arreta Soziosanitarioarako Plan Estrategikoa arras moteldu dute, hortaz, bultzada bat behar du, beharrezkoa da zerbitzu zorria zehaztea, Jaurlaritzaren finantzaketa bateratzea eta onetsitako araudi berrietara egokitzea, beharrezkoa bada.



## II. EGOITZA UNITATE SOZIOSANITARIOAK

Adineko pertsonen egoitzen barruan bereizitako unitateak dira. Toki horiek berariaz prestatu dira menpekotasun egoeran dauden eta gizarte eta osasun laguntza asko behar duten pertsonen behar dituzten prestazioak eskaintzeko. Hau da, ospitalea eta gizarte arretaren arteko erdibidea direla esan daiteke eta osasun arreta berezia eskaintzeko dira. Unitate hauetan arreta jasotzen duten pertsonak honako egoera hauetarikoren batean daude: beren bizitza bukatzen ari da eta zaintza behar dute; prozesu larri bat igaro dute eta sendatzen ari dira edo gaixondo egoeran daude; jokabide nahasteak dituzte; eritasun infekto-kutsakorrek dauzkate. Egoitza unitate hauetan urtebete egon daiteke gehienez.

### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Bizkaian arreta soziosanitariorako lehenengo unitatea Gizarte Ugazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) Leioako egoitzan sortu zen 2007ko hasieran. Guztira 36 plaza zeuden eta otsailaren 1etik Eusko Jaurlaritzarekin batera finantzatu da Aldundiak, Osakidetzak eta Eusko Jaurlaritzak 2007ko martxoaren 14an sinatutako hitzarmenaren arabera. Plaza bakoitzeko prezioa 98,94 eurokoa da egun bakoitzeko. Zenbateko horren % 47 Jaurlaritzak ordaintzen du eta gainerako % 53a Aldundia eta erabiltzailearen artean ordaintzen da, haren gaitasun ekonomikoaren arabera. Uztailean beste bi zentro itundutan 27 oheko beste unitate bana jarri ziren martxan eta Leioako egoitzaren baldintza beretan finantzatuta daude.

Egoitzen okupazioa abenduan honakoa izan da:

Plazak	Abendua
Okupatuak eta erreserbatuak .....	52
Hutsik.....	13
Aktibatu gabe .....	25
<b>GUZTIRA</b>	<b>90</b>

Aktibatu gabe daudenak bi egoitza itunduetakoak dira. 6 hilabeteko epea zuten plaza guztiak Aldundiaren esku jartzeko eta lehenengoz okupatzen dituztenean bihurtzen dira aktibo.

Egoitzen finantzaketa eta kostua:

	Mila euro
Kostu gordina.....	2.232
Jaurlaritzak finantzatua.....	565
Erabiltzaileak finantzatua.....	37
<b>KOSTU GARBIA BFA</b>	<b>1.630</b>

GUFÉk ez duenez Leioako Arreta Soziosanitarioko Unitatearen kontabilitatea bereizirik jasotzen, egoitzaren gastu osoa dauzkan hiru unitate bereizi bakoitzari (adineko pertsonen egoitza, unitate soziosanitaria eta egoera begetatiboko unitatea) egotzitako plazen arabera banandu da.



Erabiltzaileei egoitzetan izena ematen dutenetik hilabete batzuk igaro ondoren kobratzen zaie. Egoitza unitateetako bi uztailan hasi ziren unitate soziosanitario gisa funtzionatzen, beraz, fakturazioa ez da osatua. Horrez gain, araudiari jarraiki, egonaldiaren lehenengo hilabeteak ez du inolako kostu ekonomikorik erabiltzaileentzako.

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Unitate soziosanitario bakarra du, itundua da eta 80 plaza ditu. Unitatea Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du erakunde biek eta Osakidetzak 2003ko uztailaren 2an sinatu zuten hitzarmenaren arabera. 2007an plaza bakoitzeko prezioa 93,83 eurokoa izan da egun bakoitzeko. Zenbateko horren % 47 Jaurlaritzak ordaintzen du eta gainerako % 53a Aldundia eta erabiltzailearen artean ordaintzen da.

Hona hemen okupazioaren inguruko datuak:

	Erabiltzaileak		
	2005	2006	2007
Okupatuak eta erreserbatuak.....	75,2	76,3	72,9
Hutsik.....	4,8	3,7	4,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>80,0</b>	<b>80,0</b>	<b>77,2</b>

2007ko ekitaldian 80 plazarainoko aldea dago erabiltzaile batzuek plaza horiek urtebete baino gehiago okupatu dituztelako. Kasu horiek Gipuzkoako arreta soziosanitarioko Lurralde Kontseiluak analizatzen ditu, hortaz, erakunde horrek erabakitzen du arreta soziosanitarioko kasuren batean sar daitekeen eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzak finantzatzen duen ala ez.

Unitate horien kostua eta finantzaketa 2005, 2006 eta 2007an:

	Mila euro		
	2005	2006	2007
Kostu gordina.....	2.519	2.588	2.695
Jaurlaritzak finantzatua.....	1.030	1.288	1.202
Erabiltzaileek finantzatua.....	271	385	261
<b>KOSTU GARBIA GFA</b>	<b>1.218</b>	<b>915</b>	<b>1.232</b>

Erabiltzaileen finantzaketa egoitzak berak kobratzen du eta ondorioz, aipatutako zenbatekoa Aldunditik kanpoko datu bat da eta desberdintasunak egon daitezke aldiari dagokionez, gainera, Aldundiak aurrerakinen eta hiru hilez behingo likidazioen bitartez ordaintzen dio egoitzari.

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

Ez dauka unitate soziosanitariorik martxan.



## ONDORIOAK

- EAEko arreta soziosanitarioko unitate guztiak antzera finantzatu ditu Eusko Jaurlaritzak, martxan jarri diren unetik.

## III. ADINEKO PERTSONEN EGOITZAK

Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta EUDELEk 2001ean hitzartutako gizarte gaien arloko eskumen banaketaren arabera, menpeko adineko pertsonen arretaren eskumena Aldundiei dagokie, menpekoak ez direnena, aldiz, udalei dagokie. Hala ere, Aldundiek menpekoak ez diren adineko pertsonen arreta eskaintzen dieten egoitza batzuk dauzkate eta udalek ere menpekoentzako plazak dituzten egoitzak dauzkate. Azken horiek itunduak dira eta ondorioz, kasuan kasuko Aldundiak finantzatzen ditu. Halaber, gogoan izan behar da arreta soziosanitarioa menpeko pertsonen soilik dagokiela.

## BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Aldundiak GUFEEK kudeatutako 4 egoitza ditu, Bizkaiko Bideak sustatutako eta hirugarren batek kudeatutako 7 egoitza ditu (2005ean 3 zeuzkan soilik), eta egoitza pribatuetan eta udalen egoitzetan plaza itunduak dauzka.

Jaurlaritzak egoitzetan eskaintako laguntza medikua eta erizainena finantzatzen du, 2007ko martxoaren 14ko hitzarmenaren arabera. Bertan sendagilearen (21,23 euro/ordua) eta erizainaren (15,56 euro/ordua) lanordu bakoitzeko prezioa zehazten da, baita egoiliar bakoitzari dagokion arreta denbora ere kontuan hartuta menpeko pertsona den (erizainen 7,03 minutu eta sendagileen 2,4 minutu egun bakoitzeko) ala ez (erizainaren 1,11 minutu egun bakoitzeko). Hitzarmenaren barruko egoitzak gutxienez 100 plaza dituztenak dira soilik.

Ekitaldi bakoitzeko plaza kopurua honakoa da:

Egoitzak	2005	2006	2007	
	Okupatuak	Okupatuak	Hitzarmena	Okupatuak
100 plaza baino gehiago				
Zuzeneko kudeaketa (Laguntzarekin) .....	277	236	286	216
Zuzeneko kudeaketa (Ez menpekoak).....	94	92	119	70
Zeharkako kudeaketa.....	169	317	594	562
Itunduak .....	-	145	805	220
Ez itunduak.....	671	592	-	477
<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>1.211</b>	<b>1.382</b>	<b>1.804</b>	<b>1.545</b>
100 plaza baino gutxiago.....				
Zuzeneko kudeaketa (Laguntzarekin) .....	120	122	-	114
Zeharkako kudeaketa.....	30	30	-	80
Itunduak .....	-	421	-	812
Ez itunduak.....	2.294	1.725	-	1.378
<b>GUZTIZKO PARTZIALA</b>	<b>2.444</b>	<b>2.298</b>	<b>-</b>	<b>2.384</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.655</b>	<b>3.680</b>	<b>1.804</b>	<b>3.929</b>



“Hitzarmena” kontzeptuaren barruan jasotako plazak Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dituenak dira. Plaza horiek Aldundiak egoitzekin itundutakoak dira eta lau urteko epea dute horiek aktibatzen. “Okupatuak” kontzeptuak urte bakoitzeko abenduaren 31n benetan okupatuta dauden plazak barne hartzen ditu.

2005eko ekitaldira arte Aldundiak kudeatzen ez dituen egoitzen erabiltzaileek diru-laguntza bat jasotzen zuten plazaren prezioa eta beren egoera ekonomikoaren arabera ordaindu behar zuten zenbatekoaren arteko desberdintasunagatik. 2006an, aldiz, prozedura aldatu egin zen, hau da, Aldundiak egoitza pribatuekin eta udalen egoitzekin plaza kopuru jakin bat itundu zuen, egoitzei plazaren prezio osoa ordaintzen hasi zen eta erabiltzaileari zegokion zatia kobratzen hasi zen. Erabiltzaile ohiek aurreko diru-laguntza sistema mantentzeko.

Itundutako egoitza guztiek dute sendagile edo EUD bat (erizaintzako unibertsitate-diplomaduna) lanaldi erdian gutxienez, baina ezin izan dugu hori egiaztatu itunduta ez dauden egoitzen kasuan. 2007ko abenduaren 31n 235 pertsona zeuden horrelako egoitzetan sartuta eta guztiek zeuzkaten 100 plaza baino gutxiago.

Plaza horien kostua eta finantzaketa, egoitzaren neurriaren eta kudeaketa sistemaren arabera, ondorengo taula honetan jaso da:

	Mila euro		
Egoitzak	2005	2006	2007
100 plaza baino gehiagokoak			
Zuzeneko kudeaketa .....	19.622	19.435	18.715
Zeharkako kudeaketa .....	646	5.688	12.331
Itunduak .....	-	1.605	4.922
Ez itunduak .....	10.148	10.085	9.157
<b>KOSTU GORDINA BFA</b>	<b>30.416</b>	<b>36.813</b>	<b>45.125</b>
Jaurlaritzak finantzatua .....	-	-	1.947
Erabiltzaileen diru-sarrerak .....	2.256	5.951	9.172
<b>FINANTZAKETA</b>	<b>2.256</b>	<b>5.951</b>	<b>11.119</b>
<b>KOSTU GARBIA BFA</b>	<b>28.160</b>	<b>30.862</b>	<b>34.006</b>
100 plaza baino gutxiagokoak			
Zuzeneko kudeaketa .....	6.364	6.769	7.160
Zeharkako kudeaketa .....	309	704	1.473
Itunduak .....	-	4.740	16.113
Ez itunduak .....	27.940	29.626	26.603
<b>KOSTU GORDINA BFA</b>	<b>34.613</b>	<b>41.839</b>	<b>51.349</b>
Jaurlaritzak finantzatua .....	-	-	-
Erabiltzaileen diru-sarrerak .....	679	2.812	7.509
<b>FINANTZAKETA</b>	<b>679</b>	<b>2.812</b>	<b>7.509</b>
<b>KOSTU GARBIA BFA</b>	<b>33.934</b>	<b>39.027</b>	<b>43.840</b>
<b>KOSTU GARBIA GUZTIRA</b>	<b>62.094</b>	<b>69.889</b>	<b>77.846</b>



Itunduta ez dauden plazen kasuan, adierazitako kostua Aldundiak egoitzari egoiliarren kontura ordaintzen dion zenbatekoa da, baina ezinezkoa izan da egoiliarrek egoitzari zuzenean ordaintzen dion zenbatekoaren xehetasunak lortzea, hori dela eta, Aldundiarentzako kostu garbia da.

Hona hemen Jaurlaritzaren finantzaketaren datuak:

	Mila euro
Erizaintza	
Menpekoak.....	1.583
Ez menpekoak .....	13
Medikua.....	351
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.947</b>

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Aldundiak sei egoitza dauzka eta horietariko bat kudeatzen da zuzenean, gainerakoak, ordea, zeharka kudeatzen dira. Gainerako plazak egoitza pribatuekin eta udal egoitzekin itunduta daude.

Jaurlaritzak egoitza guztietako laguntza medikoa eta erizainarena finantzatzen ditu 2001eko uztailaren 6an egindako hitzarmen baten bidez. Bertan, egoiliar bakoitzari dagokion arreta-denboraren arabera kalkulaturako modulu batzuk ezartzen dira, baita mediku eta EUD bakoitzaren lanorduko prezioa ere. Aldundiak honela sailkatzen ditu egoiliarrek: autonomoak, menpekoak eta mendekotasun handiko pertsonak.

Mendekotasun handiko pertsonen menpeko pertsonen dagozkien arreta-denbora berak egozten dizkiete Bizkaian eta autonomoen dagozkienak Bizkaian menpekoak ez direnei dagozkien berak dira, zehazki, menpeko egoiliar bakoitzari sendagilearen 2,4 minutu eta erizainaren 6,48 minutu dagozkio egun bakoitzeko. 2007an lanordu bakoitzeko prezioak honakoak ziren: medikuen kasuan 20,02 euro/ordua eta erizainen kasuan 20,15 euro/ordua. Erizainen orduak garestiagoak dira prezio horretan igande eta jaiegunen orduen zati proportzionala sartu delako. Erizaintza zerbitzuak finantzatzeko, EUD duten egoitza guztiak barne hartu dira, sendagileen finantzaketarako, aldiz, 50 menpeko edo mendekotasun handiko pertsonatik gora dutenak soilik hartu dira kontuan.

2005, 2006 eta 2007ko plaza libre eta okupatuak:



	2005		2006		2007	
	Libre	Okupatuak	Libre	Okupatuak	Libre	Okupatuak
Zuzeneko kudeaketa.....	232		168		168	
Autonomoak .....		49		25		23
Menpekoak .....		156		126		126
Zeharkako kudeaketa.....	466		466		466	
Autonomoak .....		26		18		19
Menpekoak .....		228		235		235
Mendekot. handiko pertsonak		208		200		208
Itunduak .....	3.294		3.400		3.468	
Autonomoak .....		475		489		512
Menpekoak .....		1.936		1.937		1.960
Mendekotasun handiko pertsonak		792		920		963
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.992</b>	<b>3.870</b>	<b>4.034</b>	<b>3.950</b>	<b>4.102</b>	<b>4.046</b>

Medikurik eta EUDrik ez daukaten bi egoitza itunduko 60 plaza ere barne hartu dira, baina ez dute osasun laguntzaren ondoriozko konpentsaziorik jasotzen Eusko Jaurlaritzatik.

Plaza okupatuak eta libreak urte bakoitzeko urtarrilaren 15ekoak dira, izan ere, egun horretan likidatzen da hitzarmeneko finantzaketa.

Plaza horien kostua eta finantzaketa ondorengo taula honetan jaso da:

	Mila euro		
	2005	2006	2007
Zuzeneko kudeaketa.....	5.589	5.374	6.018
Zeharkako kudeaketa .....	8.502	10.578	9.810
Itunduak .....	59.386	65.801	74.279
<b>KOSTU GORDINA</b>	<b>73.477</b>	<b>81.753</b>	<b>90.107</b>
Jaurlaritzak finantzatua .....	2.547	2.891	3.212
Erabiltzaileek ordaindua .....	29.999	31.758	34.102
<b>FINANTZAKETA</b>	<b>32.546</b>	<b>34.649</b>	<b>37.314</b>
<b>KOSTU GARBIA GFA</b>	<b>40.931</b>	<b>47.104</b>	<b>52.793</b>

Egoiliar autonomoak eta menpekoak dauzkaten 48 egoitza daude, hori dela eta, ezinezkoa izan da batzuen eta besteen arteko gastuak bereiztea.

GFAk egoitzari ez dio plazaren kostu osoa ordaintzen, hau da, egoiliarrek ordaintzen ez duena soilik ordaintzen dio, hortaz, egoitza da erabiltzaileari kobratzeaz arduratzen dena. Kostuan erabiltzaileak ordaindutako zenbatekoa jaso da kasu honetan jasotako datuak beste bi Aldundien datuen parekoak izan daitezten.

Hona hemen Jaurlaritzatik jasotako finantzaketaren xehetasunak:



	Mila euro		
	2005	2006	2007
Erizaintza			
Mendekotasun handiko pertsonak.....	736	880	1.000
Menpekoak .....	1.495	1.612	1.774
Autonomoak .....	61	64	73
Medikua			
Mendekotasun handiko pertsonak.....	121	159	171
Menpekoak .....	134	176	194
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.547</b>	<b>2.891</b>	<b>3.212</b>

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

AFAk 9 egoitza propio dauzka eta egoitza bakarra kudeatzen da zeharka, horrez gain, etxebizitza komunitario psikogeriatrico bat dauka eta hori ere zeharka kudeatzen da. Gainera, egoitza pribatuekin, udal egoitzekin eta Osakidetzaren ospitaleekin (Arabako Ospitale Psikiatrikoa eta Lezako Ospitalea) ere plaza itunduak dauzka .

2008an Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak eta Aldundiak hitzarmen bat egitea erabaki zuten eta bertan, egoitza horietako osasun arretaren finantzaketa barne hartzen zen, baina Arabako Biltzar Nagusiek ez zuten berretsi eta ondorioz, ez da indarrean sartu.

Ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n plaza libre eta okupatuak kopuruak honakoak izan dira:

	2005		2006		2007	
	Libre	Okupatuak	Libre	Okupatuak	Libre	Okupatuak
Aldundiarenak .....	634	601	634	613	630	588
Zeharkako kudeaketa.....	154	150	154	151	154	149
Itunduak .....	168	164	170	167	155	137
<b>GUZTIRA</b>	<b>956</b>	<b>915</b>	<b>958</b>	<b>931</b>	<b>939</b>	<b>874</b>

2007an egoitzetariko batek soilik (33 plazakoa) ez zeukan ez medikurik, ez EUDik.

Hona hemen egoitzen kostua eta finantzaketaren xehetasunak:

	Mila euro		
	2005	2006	2007
Zuzeneko kudeaketa.....	29.699	30.800	33.437
Zeharkako kudeaketa .....	6.220	6.649	7.045
Itunduak .....	2.730	2.799	2.872
<b>KOSTU GORDINA</b>	<b>38.649</b>	<b>40.248</b>	<b>43.354</b>
Jaurlaritzak finantzatua .....	-	-	-
erabiltzaileen diru-sarrerak .....	7.397	8.178	9.047
<b>FINANTZAKETA</b>	<b>7.397</b>	<b>8.178</b>	<b>9.047</b>
<b>GARBIA AFA</b>	<b>31.252</b>	<b>32.070</b>	<b>34.307</b>



Aldundiak Gasteizko Udalarekin 74 plaza itundu ditu udal egoitza batean. Hitzarmen horren arabera, Aldundiak bere gain hartzen duen kostua berbera da menpeko egoiliarren kopurua zeinahi izanda ere. Horrez gain, Udala da erabiltzaileei kobratzeaz arduratzen dena.

Aipatutako plaza eta egoitzez gain, Aldundiak adineko pertsona autonomoentzako 41 plaza itundu ditu 5 etxebizitza komunitariotan. Horietako batek ere ez du ez medikurik, ez erizainik.

## ONDORIOAK

- Jaurlaritza, Osakidetza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko hitzarmena Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatu zenetik 6 urtera formalizatu zen, Arabako Foru Aldundiarekin, aldiz, oraindik ez da sinatu.
- Erizainaren arreta-denbora Bizkaian 1,5eko koefizientearekin biderkatzen da zeharkako jardueren kasuan, Gipuzkoan, ordea, hitzarmenean jasotako baldintza bera koefiziente hori esleitutako arreta-denboraren barruan sartuta dagoela ulertuz interpretatzen da. Bestalde, EUDaren lanorduen prezioa kalkulatzeko, Gipuzkoan igande eta jaiegunetako orduen zati proportzionala sartzen da, Bizkaian, aldiz, ez.
- Bizkaian eta Gipuzkoan irizpide desberdinak dauzkate egoitzak hitzarmenetan sartu ala ez erabakitzeko. Gipuzkoan laguntza medikoaren finantzaketak gutxienez 50 pertsona minusbaliatu dauzkaten egoitzak barne hartzen ditu, erizainen arretak, berriz, guztiak barne hartzen ditu, baina Bizkaian gutxienez 100 plaza dauzkaten egoitzak soil-soilik hartzen dira kontuan.
- Plaza finantzuak ezartzeko irizpideak ere desberdinak dira bi hitzarmenetan. Bizkaian Aldundiak egoitzekin itundutako plaza guztiak hartzen dira kontuan, baina Gipuzkoan egoiliarrek hartzen dira kontuan, hau da, okupatuta dauden plazak.
- Gipuzkoan hiru erabiltzaile mota bereizten dira: menpekoak, mendekotasun handia duten pertsonak eta menpekoak ez direnak. Bizkaian, aldiz, bi baino ez dira bereizten: menpekoak ez direnak eta menpekoak. Bereizketa desberdintasun horren ondorioz, lurralde bietako erizaintza lana desberdina da.
- Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak eta BFAk osasun laguntzaren alorrean sinatu duten hitzarmenak Leioako egoitzan 36 plaza barne hartzen ditu eta horiek unitate soziosanitarioen finantzaketa arautzen duen hitzarmenean jasotzen dira. Behar baino 43 mila euro gehiagoko finantzaketa eman da.
- Menpekoak ez diren pertsonen arreta arreta soziosanitarioaren esparrutik kanpo dago. Hala ere, aztertutako hitzarmenetan horrelako erabiltzaileak dauzkaten egoitzak sartzea ez da bidezkoa menpekotasunik gabeko pertsonentzako egoitzak kudeatzen dituzten eta bertan eskaintzen den osasun arretagatik konpentsaziorik jasotzen ez duten udalentsat.



#### IV. MINUSBALIASUN FISIKO HANDIA DUTEN PERTSONENTZAKO EGOITZAK

Ez dago hitzarmen espezifikorik horrelako egoitzetarako, bestalde, horrelako pertsonentzako egoitza bat sartu da adineko pertsonen egoitzetako osasun laguntza eskaintzeko Eusko Jaurlaritzak, Osakidetzak eta GFAk sinatu duten lankidetzak hitzarmen batean. AFAk kolektibo horri arreta eskaintzen dioten bi unitate dauzka.

#### BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Ez dauka osasun arreta eskaintzen duen egoitza propiorik ezintasun fisiko handiko pertsonentzako, ezta itundurik ere. Bizkaian pertsona horiei Bizkaiko Minusbaliotasun Fisikoa duten Pertsonen Koordinaziorako Federazioak eskaintzen die arreta.

#### GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Osasun arreta eskaintzen duen egoitza itundu bat dauka ezintasun fisiko handiko pertsonentzako, eta bertan 58 plaza dauzka. Egoitza hori Jaurlaritzarekin arreta medikoa eta erizaintza finantzatzeko sinatutako hitzarmenean sartuta dago eta 2 sendagile eta 4 erizain barne hartzen ditu.

Hona hemen erabiltzaile kopuruaren datuak:

	Erabiltzaileak
2005 .....	26
2006 .....	52
2007 .....	56

Hona hemen plaza horiek aztertzen ari garen epean izan duten kostua eta finantzaketaren datuak:

	Mila euro		
	2005	2006	2007
Kostua .....	1.040	1.691	2.708
Jaurlaritzak finantzatua .....	19	50	58
Erabiltzaileek finantzatua .....	147	410	446
<b>GARBIA GFA</b>	<b>874</b>	<b>1.231</b>	<b>2.204</b>

#### ARABAKO FORU ALDUNDIA

Aldundiak zeharka kudeatzen duen egoitza bat dauka, bertan, 19 plaza ditu eta horrez gain, 7 plaza dauzka kontratatuta kolektibo horri arreta eskaintzeko ospitale pribatu batean.

Erabiltzaileen kopuruak ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31an:



	Erabiltzaileak
2005 .....	23
2006 .....	24
2007 .....	23

Plazen finantzaketa eta kostua:

	Mila euro		
	2005	2006	2007
Kostu gordina .....	1.030	1.004	1.108
Jaurlaritzak finantzatua .....	-	-	-
Erabiltzaileek finantzatua .....	140	154	160
<b>KOSTU GARBIA</b>	<b>890</b>	<b>850</b>	<b>948</b>

## ONDORIOAK

- Jaurlaritzak, Osakidetzak eta Aldundiek minusbaliotasun fisiko handia duten pertsonentzako egoitza unitateetako osasun arreta arautzeko hitzarmen espezifikoak sinatzea komeni den aztertu beharko litzateke.

## V. UNITATE PSIKOSOZIALAK

Alor horretako jarduerak nagusiki arreta psikiatrikoa behar duten adimen-gaixotasun kroniko eta larriak dauzkaten pertsonen arretaren ingurukoak dira. Berez egoitzarik ez dagoen arren, tutoretzapeko etxebizitzak eta eguneko zentroak daude. GFArekin soilik hitzarmen bat sinatu denez, beste bi lurraldeetan antzeko unitateak dauden aztertu dugu, baita horiek Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta Aldundi bakoitzeko Gizarte Gaien Sailek finantzatzen dituzten aztertu ere.

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2002ko maiatzaren 31n GFak, Eusko Jaurlaritzak eta Osakidetzak hitzarmen bat sinatu zuten GFak kudeatu, babestu eta itundutako "Gipuzkoako adimen-gaixo kronikoentzako Eguneko Zentro Psikosozialetan errehabilitazioko laguntza psikiatrikoko zerbitzuak bermatzeko". Hitzarmen horren arabera, Eusko Jaurlaritzak Aldundiari 8 eguneko zentrotako kostuen zati bat finantzatzen dio, baita arreta psikiatrikoa eta erizaintzakoa ere. 2007an egonaldi bakoitzari dagokionez, 8,60 eta 25,96 euro arteko prezioa ordaintzen da (erabiltzaile eta egun bakoitzeko), zentro bakoitzeko kostu estandarren arabera kalkulatuta. Eguneko zentroetariko bi zeharka kudeatzen dira eta beste seiak itunduak dira.

Azken hiru ekitaldietan erabiltzaile kopuruaren batez bestekoa egonkor mantendu da:



	Erabiltzaileak
2005 .....	94
2006 .....	96
2007 .....	97

Zortzi zentroetatik zazpi adimen gaixotasunak dauzkaten pertsonentzako dira, bestea, aldiz, errehabilitazio fasean dauden eta adimen-gaitzen bat edo HIESA duten toxikomanoei arretera psikosoziala eskaintzera bideratutako zentro bat da.

Plazen finantzaketa eta kostua:

	Mila euro		
	2005	2006	2007
Kostua .....	906	1.111	1.099
Jaurlaritzak finantzatua .....	366	413	415
Erabiltzaileek finantzatua .....	51	139	98
<b>GARBIA GFA</b>	<b>489</b>	<b>559</b>	<b>586</b>

## BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Aldundia eta Jaurlaritzaren artean ez da hitzarmenik sinatu arretera eskaintzen duten eguneko zentroetako osasun arretaren gastua finantzatzeko. Hala ere, erakunde biek laguntza hori eskaintzen duten hiru entitaterekin (Argia Fundazioa, Bizitegi Elkarte eta Avifes) hitzarmenak eta kontratuak sinatu dituzte. Hitzarmen horietan Aldundiak eta Gobernuak antzeko zenbatekoekin finantzatzen dituzte itundutako plazak. Hala ere, Avifes Fundazioari dagozkion unitate batzuek bi erakundeatariko baten finantzaketa jasotzen dute soilik.

Hitzarmen horiek eguneko zentroetara nahiz tutoretzapeko etxebizitzetara bideratzen dira. Hona hemen zentro horietan biltzen diren erabiltzaileen batez besteko kopurua:

	Erabiltzaileak		
	Aldundia		Gobernua
	Eguneko Zentroak	Etxebizitzak	
2005 .....	196	65	317
2006 .....	298	100	341
2007 .....	343	114	387

Plazen finantzaketa eta kostua:

	Mila euro		
	2005	2006	2007
Jaurlaritzak finantzatua .....	919	1.190	1.464
Kostua BFA .....	704	1.255	1.444
Erabiltzaileek finantzatua .....	167	201	264
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.790</b>	<b>2.646</b>	<b>3.172</b>



## ARABAKO FORU ALDUNDIA

AFAk hitzarmenak sinatu ditu hiru erakunderekin (Bidegurutzea Elkartea, Arabako Etxea Elkartea eta Beti-gizartean Fundazioa). Horien bidez finantzatzen ditu bi egoitza txiki, tutoretzapeko 5 etxebizitza eta etxebizitza komunitario bat, guztira 82 plaza dira, eta horrez gain, 7 plaza dituen egoitza txiki propio bat dauka.

Egoitza txikietako batek soilik dauka erizaintza zerbitzua, batek ere ez du Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saitetik finantzaketarik jasotzen eta Osakidetzako adimen osasuneko zentroetatik eskaintzen da arreta psikiatrikoa.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bitartez finantzatzen da eta hiru ekitaldietan ondorengo gastua eragin du:

	Mila euro
2005 .....	623
2006 .....	831
2007 .....	819

## ONDORIOAK

- Bizkaian Gipuzkoan aplikatzen den antzeko prozedura aplikatu beharko litzateke, kontrola hobetuko litzateke eta.

## VI. BESTE JARDUERA BATZUK

Hitzartutako jardueraz gain, beste jarduera soziosanitario batzuk ere daude.

Horiek zehazteko, Arartekoak arreta soziosanitarioari buruz egin zuen txostenean jasotako Lurralde Historikoetako baliabide eta programen zerrendetatik abiatu gara eta Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseiluaren aktak eta Lurralde Kontseiluenak berrikusi ditugu eta benetan eduki soziosanitarioa duten aztertu dugu.

## EGOERA BEGETATIBO IRAUNKORREAN DAUDEN PERTSONEN UNITATEA

Horrelako unitate bat dago soilik, eta Bizkaian dago, Leioako Adineko Pertsonentzako Egoitzan. Unitate hau 2004an eratu zen eta 18 eta 60 urte bitarteko pertsonentzako da, zehazki, Osakidetzaren akutuentzako eta egonaldi ertaineko ospitaleetatik datozen eta egoera begetatibo jarraitu eta iraunkorrean dauden pertsonentzat da (lesio entzefaliko larri baten ondoriozko sindromea da eta kontzientziarik gabe dauden gaixoak dira).

Aztertutako hiru ekitaldietan abenduaren 31n 6 plaza egon dira eskuragarri eta okupatuta. 2008an 2 plaza gehiago jarri dira unitatean.

Eusko Jaurlaritzak ez du unitate hau finantzatzen, ez osoki, ezta zati batean ere. Hala ere, bertan sartzen diren pertsonen ezaugarrien kontrola Bizkaiko Arreta Soziosanitariorako Lurralde Kontseiluaren esku dago.



GUFEk ez duenez Leioako Egoera Begetatiboko pertsonen Unitatearen kontabilitatea bereizirik jasotzen, egoitzaren gastu osoa dauzkan hiru unitate berezietako bakoitzari (ikusi II. Atala) egotzitako plazen arabera banandu da.

	Mila euro
	Kostua
2005 .....	311
2006 .....	305
2007 .....	325

## ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROAK

Zentro batzuetan adineko pertsonen egoitzetan bezala eskaintzen da mediku edo erizaintza arreta. Beste kolektibo batzuen arretan (adibidez, adimen gaixotasuna dutenena) horrelako zentroak finantzatu egiten dira.

Ondorengo taulan hiru Aldundiek hiru ekitaldietan zentro horiek mantentzean izan dituzten gastuak jaso dira. Ez da mediku edo erizainik gabeko eguneko zentroen kostua kendu informazio partziala soilik dugulako:

	Mila euro		
	2005	2006	2007
Bizkaiko FA .....	4.699	5.636	7.807
Gipuzkoako FA .....	8.187	9.228	11.508
Arabako FA .....	3.796	4.168	4.380

Horrez gain, Arabako Foru Aldundiak 138 plaza dauzka Eguneko Arretarako Landako Zentroetan. Bertan, menpekoak ez diren adineko pertsoneri soilik eskaintzen die arreta eta bertan ez daukate ez EUDik, ez medikurik.

## DROGAMENPEKOTASUNAK

Prestazioek tratamendu ambulatorioari, komunitate terapeutikoak martxan jartzeari eta metadona zentroei egiten diote erreferentzia. Zerbitzu horiek fundazioen bitartez eskaintzen dira, adibidez Bizkaian Gizakia eta Etorkintza, Gipuzkoan Izan eta Araban Jaiki eta Erantsi fundazioa daude.

Fundazio horiek Aldundietatik laguntzak jasotzen dituzte hainbat kontzeptugatik. Ondorengo taulan eguneko zentroetako edo egoitzetako laguntza zerbitzuei buruzko datuak soilik jaso dira:



	Mila euro		
	2005	2006	2007
Bizkaiko LH			
Aldundia.....	400	694	733
Gobernua.....	973	1.116	1.172
Gipuzkoako LH			
Aldundia.....	568	565	299
Gobernua.....	585	602	621
Arabako LH			
Aldundia.....	197	307	388
Gobernua.....	206	218	212

Arabako AFak Gasteizko Udalarekin batera egin du hitzarmena Jeikirekin eta Aldundiaren antzeko zenbatekoa dagokio.

## AUTISMOA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA

Bi elkartek eskaintzen dute: Bizkaian Apnabik eta Gipuzkoan Gautenak. Ez da erraza LSEKak mantendutako arreta soziosanitarioaren barruan sartzea, lehenengo urteetan soilik eskatzen baitu ezinbestean baterako arreta.

Hortaz, Apnabik hitzarmen bat dauka Osakidetzarekin eta horren arabera, Erakunde horrek elkarteari Osakidetzak eskuordetutako kasuetan haur eta gazteentzako (18 urtera arte) arreta psikiatrikoko zerbitzu ambulatorio espezializatuak eskaintzearen ondoriozko gastuak ordaintzen dizkio. Jarduera horrek 2007an Jaurlaritzarentzako 208 mila euroko gastu publikoa eragin dio.

BFAk, aldiz, eguneko zentroak finantzatzen ditu, baita hezkuntza bereziko zentroak eta egoitzak ere. Finantzaketa hori 2007an 3.182 mila eurokoa izan da guztira.

Gipuzkoako egoera ere antzekoa izan da: Jaurlaritzak hitzarmen bat egin du Gautenarekin autismo kasuak Osakidetzatik elkarte horretako espezialistek eskuordetzeko eta horren ondorioz, 2007an guztira 167 mila euro ordaindu zituen. GFAk 2007an eguneko zentroak eta egoitza zerbitzuak finantzatu zituen eta guztira 2.092 mila euro bideratu zituen helburu horretara.

## HIESA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA

Nagusiki hiru lurraldeetako HIESaren kontrako elkarrekin eskaintzen dute eta horretarako, tutoretzapeko etxebizitzak daukate. Gainera, BFAk Bietxeak zentroa dauka. Zentro hori GUFek kudeatzen du. Gipuzkoan, aldiz, Cáritasek egoitza bat dauka (Villa Betania).

Aldundiek hitzarmenak daukate pisu eta egoitza horiek finantzatzeko, arreta medikoa, ordea, Osakidetzaren kargura da. 2007an Aldundiek pertsona hauen arretarako egin duten gastua honakoa izan da:



	Mila euro
	2007
Bizkaiko FA.....	922
Gipuzkoako FA.....	340
Arabako FA.....	506

## KALTE ZEREBRALA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA

BFAk GUFek kudeatzen duen eguneko zentro bat dauka (Bekoetxe). Bertan, 45 pertsonarentzako tokia du. GFAk ere eguneko zentro bat dauka, baina Aita Menni Ospitalea da zentroa kudeatzen duena eta 25 pertsonarentzako tokia du. Zentro biek eskaintzen dituzte zerbitzu neuropsikologikoak.

2007an Aldundi biek pertsona hauen arretarako egin duten gastua honakoa izan da:

	Mila euro
	2007
Bizkaiko FA.....	925
Gipuzkoako FA.....	334

## BESTE BATZUK

Hiru lurraldeen baliabide eta programen barruan, Arartekoaren txostenean aipatuta eta Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseiluaren edo Lurralde Kontseiluen aktetan adierazita ez badaude ere, aipatu beharreko beste kolektibo jakin batzuentzako arretarako zerbitzuak ere daude.

1. Minusbaliotasun intelektuala duten pertsonak. Hiru lurraldeetan daude pertsona horientzako baliabideak eta arreta sozialaz gain, osasun arreta ere eskaintzen da, adibidez, Araban Etxebidea egoitzan (GOFek kudeatzen du), baita GFAaren Uliazpi Organismo Autonomoaren zentro batzuk ere. Horrez gain, Gipuzkoan Gurek elkarteak eta Bizkaian Gorabide elkarteak egoitzak eta eguneko zentroak dauzkate eta horiek Aldundien diru-laguntzak jasotzen dituzte.
2. Parasili zerebrala duten pertsonak. Aspace elkarteak eskaintzen du alor honetako arreta hiru lurraldeetan. Aldundiek hitzarmenak dauzkate elkarte horrekin eguneko zentroetako arreta eta arreta goiztiarra eskaintzeko. Horrez gain, Osasun Sailak hitzarmen bat dauka Gipuzkoako Aspacerekin, diagnostikoa eta tratamendua egiteko gaixoak eskuordetzeko.

## VII. PLAN ESTRATEGIKO SOZIOSANITARIOA

Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseiluak onetsitako Euskal Herriko arreta soziosanitariorako Plan Estrategikoak “ekintza planaren kostuen eskema” bat barne hartzen zuen eta Planean jasotako 30 ekintzetako 12ren kostua kalkulatu zuen. Hona hemen plana garatzeko aurrez ikusitako kostuen xehetasunak:



Aurrez ikusitako Kostuak 2005-2008

Ekimena	
1	Komunikazio soziosanitariorako urteko plana ..... 132
3	Menpekotasunarentzako arretaren estaldura publikorako instrumentu baten ezarpenean parte hartzea ..... 3
6	Egungo egoeraren analisia: Euskal Herrian baterako ordainketa sistemak hobetzeko azterketa eta plana ..... 264
7	Babeserako sare informala osatzea ..... 84
8	Zaindari informalen babeserako programak ..... 336
9	Sektore pribatuaren interes, behar eta aukerei buruzko azterketa arreta soziosanitarioaren esparrukoa ..... 150
16	Arreta soziosanitarioaren alorreko gogobetetasun inkesta ..... 120
20	Lurralde guztietan erabiltzaile guztientzako balorazio eta eratorpen sistema bakarra ezartzea ..... 1.073
21	Profesionalentzako prestakuntza ..... 368
22	Jarduera protokoloak ezartzea..... 6
27	Detekzio goiztiarrerako dibulgazio / informazio / prestakuntza ekintzak gauzatzea ..... 172
30	Informazio eta komunikazio soziosanitariorako sistemen plana ..... 750
<b>GUZTIRA</b> ..... <b>3.458</b>	

Jaurlaritzak eta Aldundiek ez dute epigrafe hauen inguruko kontrolik ezarri, eta ondorioz, ezin da zehaztu zein izan den benetan izan duten gastua. Gainera, profesionalen prestakuntza edo dibulgazio ekintzak bezalako kontzeptuak Aldundiek Plan Estrategikoa onetsi baino lehen ere garatzen zituzten jarduerak ziren.

Planaren kostuaren elementu nagusia RAI-RUG izeneko balorazio eta eratorpen sistema bakarra ezartzean zetzan, Gipuzkoako Aldundian ezarria izaten hasia zen eta BFA 2006an hasi zen sistema hau erabiltzen. Hala ere, 39/2006 Legearen onespeneraren ondorioz, sistema hori derrigorrez uztartu behar izan da 26 eta 27. artikuluetan ezarritakoarekin.



## I. INTRODUCCIÓN

Este informe de valoración económico – financiera del Plan de Atención Sociosanitaria del País Vasco, se realiza conforme a la Ley 1/1988 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, y está incluido en el Plan de Trabajo para el ejercicio 2007 a petición del Pleno del Parlamento Vasco.

El trabajo ha consistido en la obtención y análisis de la información económico financiera sobre las actuaciones sociosanitarias del Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales. En concreto, hemos analizado:

- a) El coste económico de los convenios firmados entre las Diputaciones, el Gobierno Vasco y Osakidetza para la asistencia sanitaria en residencias de personas mayores, en unidades de atención sociosanitaria y para la asistencia psiquiátrica en centros psicosociales para enfermos mentales crónicos, así como el gasto incurrido por dichas administraciones en la gestión o concertación de dichos centros.
- b) Revisión con el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y con los departamentos de asuntos sociales de las Diputaciones de otras actividades sociosanitarias realizadas, estableciendo su coste económico para la administración. Para ello hemos utilizado como referencia el informe emitido por el Ararteko en 2008, sobre la situación de la atención sociosanitaria en Euskadi.
- c) El esquema de coste del plan de acción aprobado en el Plan Estratégico para el Desarrollo de la Atención Sociosanitaria en el País Vasco.

No se han analizado los posibles gastos de carácter sociosanitario en que hubieran podido incurrir los ayuntamientos. De acuerdo con la distribución de competencias en materia de servicios sociales, la atención a personas mayores asistidas y personas con discapacidad corresponde a las Diputaciones Forales. (D. 155/2001, de 30 de julio, de determinación de funciones en materia de servicios sociales y acuerdo suscrito entre el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y EUDEL sobre reparto competencial en materia de servicios sociales, el 8 de febrero de 2001).

## ASISTENCIA SOCIOSANITARIA

